

## Tipi-Tapa gunea

Tipi-Tapa 0-4 urte bitarteko haurrak dituzten familientzako aisialdirako gunea da eta Legutioko Kultur Etxeko 2. solairuan dago.

Jolasleku estalia da, segurua, garbia, atsegina, edoskitzeko egokia, ordu luzez irekitzen dena. Bertan jolastu eta familien zein haurren arteko harremanak estutzeko gunea da.

Tipi-Tapak esperimentaziorako eta jolas librerako lekua eskaintzen die familiei, eguraldi txarreko egunetan bereziki.

## Guk zaintzen dugu Tipi-Tapa

Tipi-Tapa herriko familien artean asmatu, diseinatu eta sortu zen 2021. urtearen amaieran, Udalaren laguntza ekonomikoarekin.

Legutioko Udalak doan uzten digu espazio hau inskribatutako familiei, argia, berogailua eta garbiketara zerbitzuarekin.

Gure aldetik, familia erabiltzaileak Tipi-Taparen funtzionamendu egokiaz eta ondo mantentzeaz arduratzen gara. Garrantzitsua da ulertzea ez dela haurrak aparkatzeko gunea bat, baizik eta bizikidetzaren gunea bat, non haurrak beti egoten diren heldu batekin. Monitorerik gabe.

Horregatik, espazioa zaindu behar dugu, materialak bildu, argiak itzali eta atea itxi Tipi-Tapatik joan aurretik. Funtzionamendu eta erabilera egokia familia erabiltzaileen erantzukizuna da.

**Tipi-Tapa doakoa da, baina izena eman behar da konpromiso batzuk hartzeko eta eragile aktibo gisa agertzeko. Tipi-Tapari buruzko informazioa whatsapp talde batean partekatzen dugu, izena eman duten familia guztien artean. Inskripzio-orria Tipi-Tapako sarreran aurkituko duzue.**



“Jolasa plazera da, ekintza da, arreta da, emozioa da, gozamenaren bidezko adierazpena da.”



## Tipi-Tapa 0-4 urte

**Aste barruan: 16:30-19:30**

(Kultur Etxeko liburutegian eskatu giltza)

**Asteburu eta jaiegunetan 10:00-19:00**

(Zaharren etxean eskatu giltza)

## **TIPI -TAPA GUNEA**

Tipi-Tapa gunea aisialdirako gune publikoa eta doakoa da 0 eta 4 urte bitarteko haurrak dituzten familientzat. Espazio honek familiei jolasgune estali bat eskaini eta familien arteko harremanak estutzeko aukera ematen du. Tipi-Tapa gunea proiektu autogestionatua da, eta bertan familia erabiltzaileak espazioaren funtzionamendu eta kontserbazio egokiaz arduratzen dira.

### **TIPI-TAPA GUNEA ERABILTZEKO ARAUAK**

- **ADINA**
  - erabiltzaileek 0-4 urte izan behar dituzte
- **ARDURADUNA ETA LAGUNTZA**
  - Haurrak beti egon behar du heldu baten ardurapean, monitorerik gabeko gunea baita.
  - Adin desberdinetako seme-alabak dituzten familiek Tipi-Tapa erabil dezakete; hau da, 0-4 urteko haurren anai-arrebei sartzen uzten zaie.
- **IZEN EMATEA**
  - Izena eman behar da
  - Familia bakoitzak bere lokalean egingo du inskripzioa, sartzen diren lehen aldian.
- **ORDUTEGIA ETA EGUTEGIA ASTEAN ZEHAR**
  - Asteaz zehar 16:30-19:30
  - Liburutegia zabalik dagoen egunetan irekita egongo da.
- **JAI-EGUNETAN ETA ASTEBURUETAN**
  - Izena eman duen familiaren batek jaiegun batean Tipi-Tapa erabili nahi badu, Zaharren etxean eskatu beharko ditu giltzak, eta eskaera-inprimakia bete beharko du.
  - Jaiegunetan, 10: 00etatik 19: 00etara erabili ahal izango da Tipi-Tapa.
  - Whatsapp taldean nahitaez ohartarazi behar da lokala irekiko dela, beste familia batzuek ere erabili ahal izan dezaten.
  - Kultur Etxeko ate nagusia giltzaz itxi behar da jaiegunetan bertara sartzen denean kalean dagoen beste inor Kultur Etxera ser ez dadin.
- **LOKALA IREKITZEA ETA IXTEA**
  - Tipi-Tapara iritsi den lehen familiak giltza eskatuko dio liburutegiko arduradunari, eta espazioa irekitzeaz arduratuko da. Giltza atean jarrita utziko du.
  - Lokaletik alde egiten duen azken familia arduratuko da argi guztiak itzaltzeaz, atea ixteaz eta liburutegiko arduradunari giltzak emateaz.
- **JOSTALUAK**
  - Ezin da etxetik ekarritako jostailurik edo bestelako materialik utzi Tipi-Tapan. Familiek jostailuak ekarri ahal izango dituzte, baina etxera eraman behar dituzte egunero joaten direnean, Tipi-Tapa trasteleku bihurtu ez dadin.
  - Lokalean dauden materialak behar bezala erabili behar dira, eta ondo bilduta utziko dira, goizean garbitu ahal izateko.
- **OINETAKOAK**
  - Aretora ezin da kaleko oinetakoekin sartu.Oinutsik sartzea gomendatzen da.
- **JANARIA**
  - Zerbait jan nahi izanez gero, erabili mahaiak, ezin da jolaslekuan jan..
- **PARDELAK**
  - Ez utzi pardel usaintsurik Tipi-Tapako zabor-ontzian.
- **EDUKIERA**
  - Gehienez 37 pertsona egon daitezke Tipi-Tapan momentu berean (Código Técnico de Edificación).
- **MANTENU-LANAK**
  - Familiak arduratzen dira ekipamenduaren mantentze-lanak egiteaz eta ekipamenduan sor daitezkeen kalteak konpontzeaz.
  - Erabiltzaileek whatsapp bidez abisatuko dute matxuraren bat ikusten badute.
  - Instalazioetan kalterik sortuko balitz Udalean jakinaraziko da, betiere alde aurretik whatsapp taldean abisatuta.

### **IZEN EMATEAN ONARTZEN DIREN BALDINTZAK**

1. Erabiltzaile guztiek elkarbizitzarako gizarte-arauak bete behar dituzte, baita gainerako erabiltzaileen ezaugarriak errespetatu ere.
2. Erabiltzaileek erabilera-arauak eta ordutegiak errespetatuko dituzte, eta ez dute gorabeherarik eragingo. Espazioa irekitzeaz eta segurtasunez ixteaz ere arduratuko dira.
3. Erabiltzaileek egoera onean mantendu beharko dituzte lekua eta ekipamendua.
4. Arau bat urratzeak Tipi-Tapa aldi baterako edo betiko erabiltzeko aukera galtzea ekar dezake, arau-haustearen larritasunaren arabera.
5. Kalteak gertatuz gero, erabiltzaileek mantentze-lanak egiteko konpromisoa hartzen dute.